

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**392/2016 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, onartzen duena Beatriz Gomez Santamaria izendatzea halabeharrez Laudioko Udaleko kontuhartzaile, zeregin horretan jardun dezan urriaren 3tik 11 arte (biak barne)**

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio halabeharrezko izendapen horren beharra daukala, epe horretan Maria Teresa Ibarondo Bilbao udal kontu-hartzailea ordezkatzeko.

Horregatik, proposatu du udal horretan Ogasun eta Ondare Arloko teknikariaren lanpostua betetzen duen Beatriz Gomez Santamaria halabeharrez izendatzea lanpostu hori bete dezan aldi horretan.

Gaikuntza nazionalako toki administrazioiko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren 33. artikulua xedatutakoari jarraitu zaio (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, beste honek eman zion idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

Betetzearren 1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak (52/1992 Foru Araua), horien bitartez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Titularra ez dagoen bitartean, Beatriz Gomez Santamaria andrea halabeharrez izendatzea Laudioko kontuhartzaile lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzan 2016ko urriaren 3tik 11ra.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 30a

*Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko  
foru diputatua eta diputatu nagusiordea*  
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
IÑAKI GUILLERNA SAENZ